

Lur Korta ipuin kontalaria izan da Antsoaingo liburutegian

Ipuinek haurren irudimena garatzeko baliagarri direla esan zuen kontalari oiartzuarra Lur Korta herenegun, Antsoaingo liburutegian.

Iruñea. Aurreko ostiralean Antsoaingo haurrek euskarazko ipuinen xarmaz gozatu zuten. Izan ere, Lur Korta ipuin kontalari oiartzuarra herriko liburutegian egon zen. Haur asko zeudela eta, bi txandatan banatu zuten ipuinen kontaketa. Lehenik hiru urtetik bosterako umeentzako saioa egin zen eta ondoren sei urtetik hamabirako haurrei zuzendutako txanda. Saio bakoitzak ordu erdi iraun zuen eta bina ipuin kontatu zituen Kortak. "Normalean ordu beteko saio bakarra egiten dut, baina hemen haur asko daudenez, bitan banatzea erabaki genuen", azaldu zuen ipuin kontalariak. Ipuinak orain "modan" daudela eta, haur ugari hurbildu ziren ipuin kontalariengana. Txomin Ipurdi izan zen herenegun kontatutako ipuinetako bat, Kortaren erreperorioan "ia klasiko" bihurtzen ari den ipuina, hain zuzen ere. Kortak ez ditu oro har ipuin klasikoak kontatzen, baizik eta "legendak, kondairak eta klasikoak ez diren ipuinak", hots, "haurrentzako berriak diren istorioak", bestela, "desmotibatu egiten dira eta".

Ipuinen xarma "kontatzeko eran" dagoela uste du Kortak, bestalde. "Ipuin kontalariontzat, aktore garen aldetik, kontatzeko era oso garrantzitsua da", argitu zuen. "Ez ditugu ipuinak eserita kontatzen -jarraitu zuen-, baizik eta pertsonaien interpretazio dramatikoak egiten dugu". Interpretazio horretan, mugimenduen eta ahotsaren aldaketaz baliatzen dira kontalariak ipuinen pertsonaiei bizia emateko. "Hau da, narrazio aldetik, hitza baino interpretazioa erabiltzen dugu gehiago eta horrek asko aberasten ditu umeak", esan zuen Kortak.

Ipuin kontalaria Nafarroako Antzerki Eskolan ikasi nuen eta duela zazpi urtetik dabil kontalari moduan Euskal Herriko haurrei irudimena sustatzen. Kortak adierazi zuenez, "antzerki eskolako praktika bezala hasi nintzen ipuinak kontatzen, baina ia lanbide bihurtu daniretzat". Ipuin kontalaria izateaz gain, Oiartzungo gazteak antzerki talde bat zuzentzen du eta, halaber, antzerki eskolak ematen ditu. >a.a.b.